



Lerro Estrategikoak eta Proiektuak 2017-2020

Administrazio Kontseilua, 2018-11-27

Edukia

1. zatia: Zerbitzu Publikoa eta Programa Kontratua

EiTB, Zerbitzu Publikoaren 10 eginkizun	4
---	---

2. zatia: Estrategiaren laburpena

1. Eginkizuna, Ikuspegia eta Balioak	7
2. Ildo estrategikoak	8

3. zatia: Ildo estrategikoak

1. Zerbitzu Publikoaren eredu izatea audientzia eta gizarte- prestigio ona bermatuz.	10
2. Informazioan eta egungo gaietan liderrak izatea EiTB taldeak informazio-iturri nagusia izaten jarrai dezan.	13
3. Euskarazko edukien eskaintza , euskararen gizarte-prestigioa eta bere erabileraren normalizazioa sustatzeko.	16
4. Eraldaketa digitala konektatutako gizarte zorrotz bati erantzun ahal izateko.	20
5. Pertsona adituak , partekatutako proiektu bat dutenak.	25
6. Euskal ikus-entzunezko sektorearekin eta erakunde akademikoekin lankidetzan aritzea etengabe handitzen ari den sormenerako.	28
7. Inbertsioen politika.	31
8. Kudeaketa aurreratua eta jasangarria	34

4. zatia: 2017-2020 aldirako proiektuen laburpen- koadroa	38
---	----

1. Zerbitzu Publi- koa eta Pro- grama Kontra- tua

EiTB, Zerbitzu publikoaren 10 eginkizun

2016-2019 aldirako Programa Kontratuak EiTBk eskaini beharreko Zerbitzu Publikoaren ardatz nagusiak berrikustea eta eguneratzea erraztu du.

Zerbitzu hori **10 eginkizunetan** hezurmamitzen da; eginkizun horiek Programa Kontratuan zehar sakontzen dira; bestalde, hartutako konpromiso nagusiak eta haien adierazle nagusiak jasotzen ditu dokumentu honek.

Laburbilduz, hauek dira EiTBri ezarritako Zerbitzu Publikoaren 10 eginkizunak:

- 1** ***Kalitatezko informazioa bermatzea***, errealitatea zintzo islatuko duten edukien bidez, erreferentziazko informazio-iturrietan egiaztatutako eta gaitasun handiko profesional-talde batek landuak, zeintzuen jardun profesionalak egia, askatasuna, aniztasuna eta giza eskubideak babestea izango baitu jomuga.
- 2** ***Euskara sustatzea gero eta elebidunagoa den gizarte batean***; hala, euskararen normalizazioa, prestigioa eta bizitza publikoan duen presentzia bultzatuko dira, eta EiTB euskararen erabilera errazteko eta hedatzeko ezinbesteko tresna bihurtuko da.
- 3** ***Euskal kultura sustatzea eta zabaltzea*** adierazpen artistiko eta kulturaleri babes eman. Egungo sorkuntza-lanak eta Euskal Herriko ondare artistiko eta kulturala zabaltzea. Kultura eta, bereziki, euskal kultura atsegin duten ikus-entzuleen taldeak finkatzen laguntzea, berariazko esparruak sortuz, promozioak tartekatuz, eta gai horiek programazioko fluxu orokorrean intereseko eduki gisa txertatuz.
- 4** ***Euskal kirola sustatzea eta zabaltzea***. Kirolak egungo gizartean egitura-tze-ardatzak sortzeko duen gaitasuna ikusita, EiTBk gizonezkoen eta emakumezkoen kirola sustatzearen eta zabaltzearen aldeko jarrera argi eta sendoa izango du, kirola euskal gizartearen elementu integratzaile gisa hartuta.
- 5** ***Ikus-entzunezkoen industria sustatzea***, gizartearentzat aberastasuna eta onura ekonomiko zein kulturala sortuta. Euskal Herrian, EiTB da industria horren erreferentzia eta sektoreko enpresa bultzatzailea. Xede horrekin, ekoizpen propioa (barnekoa zein elkartua) handia izatea sustatuko du, herrialdeko industria, sormen eta artearen alorreko industriaren garapena sustatuko du, eta ekarpena egingo dio Eusko Jaurlaritzak ikus-entzunezkoen eta zinemaren industria-politikaren arloan duen estrategiari.

-
- 6** **Gizarte-kohesioa sustatzea** edukietan, publizitatean eta hizkuntzaren erabilera orokorrean berdintasunarekin eta dibertsitatea zaintzarekin lotutako printzipioak eta politikak txertatuta, eta, oro har, giza eskubi-deak sustatuta.
-
- 7** **Informazioaren gizartea herritar guztientzat sustatzea.** Hau da, hedabidearen eta sareko pertsona aktibo guztien arteko lotura ezartzea; gizarte-sareen bitartez parte-hartzea kudeatzea eta internet bidez kontsumitzeko edukiak eskaintzea. Baliagarriak izatea Euskadiren irudia kanpoan zabaltzeko, herritarren eta euskal erakundeen interesak elkarlotzeko eta gure herria munduko euskal kolektibitateekin konektatzeko.
-
- 8** **Euskal erakundeek onartutako 2017-2020 aldirako Bake eta Bizikidetzaren Plana betez jardutea.** EITBk bere programazioan eta ildo editorialean txertatzen ditu instituzioetan onartutako konpromiso eta baloreak, eta horiek garatzen dituzten erakundeekin modu aktiboan kolaboratzen du.
-
- 9** **Aurrerakuntzako eta normalizatorako plan eta jarduera instituzionalak garantzen laguntzea:** i) emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna; ii) euskara garatzeko planak; iii) Euskadiko autogobernuaren eta haren erakundeen errealitateari buruzko jakintza; iv) ingurumen-erantzukizuna; v) ekonomia berraktibatze eta ekintzailera sustatzeko kultura; vi) Euskadiko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana (ZTBP) eta, bereziki, Kultura eta Sormen Industrien (KSI) garapena.
-
- 10** **Gobernu arduratsuaren eta enpresa-gardentasunaren printzipioak aplikatzea eta gizarte zibilari parte hartzeko esparruak eskaintzea.** Horrek zera esan nahi du, Gobernu Korporatiboaren eta Gizarte Erantzukizunaren kodeak aplikatzea, enpresa gobernatzean zintzotasuna eta gardentasuna eta interes-taldeekin elkar entzuteko harremanak bultzatzeko.
-

2. Estrategiaren laburpena

Eginkizuna

Zerbitzu publikoa gara.

Pertsoneri hitz egiten diegu eta **elkarri eragiten diogu**.
Informazioa, dibulgazioa eta **entretanimendua** eskaintzen ditugu;
Euskal kultura eta **euskararen** normalizazioa eta erabilera sustatzen ditugu .

2020ko ikuspegia

Korporazio multimedia liderragara Euskadin

Erreferentzia gara **informazio-sinesgarritasunari** dagokionez.

Euskal ikuspegidun edukiak eskaintzen ditugu,

herritarrekin hartu-emanak ditugu eta

komunikaziorako euskal eremu asortzen laguntzen dugu.

Gure **aldaketaren** helburua **konektatutako pertsonak** eta **edukien komunitateak** EITB-
ren eginkizunaren erdigunean jartzea da.

Baloreak

Arduratsuak Zer egingo dugun esaten dugu eta konpromisoak betetzen ditugu. Kudeatzen ditugun baliabide publikoak erantzukizunez erabiltzeko ardura hartzen dugu. Gure lana egitean kode deontologikoa errespetatzen dugu eta emaitzetan gardentasuna eskaintzen dugu.


Aldatzeko prest Aldaketek aukerak ekaritzen dituztelako uste osoa dugu. Aukerez baliatzen dakigu, gai gara geure buruak zalantzan jartzeko, joerak behatzeko eta sortzaile izanik arriskuak hartzeko.

Gertukoak Bertaratu egiten gara. Eskuragarriak gara. Entzun egiten dugu. Gure erakundearekin harremanetan jartzen denari behar besteko arreta eskaintzen diogu. Gertutasuna eta harremana funtsezkoak dira gure markaren nortasunean.

Profesionalak Komunikabide publikoen negozioaren kodeak ulertzen ditugu. Sinesgarritasuna zaintzen dugu beti eta biziak, zorrotzak eta eraginkorrak gara.

8 ildo estrategiko

I	Zerbitzu publikoaren eredua audientzia eta gizarte-prestigioa bermatuz.
II	Liderrak informazioan eta gaurkotasunean EITB taldeak informazioaren erreferente nagusi izaten jarrai dezan.
III.	Euskarazko edukien eskaintza euskararen erabileraren normalizazioa sustatuz.
IV	Eraldaketa digitala konektatutako gizarte zorrotz bati erantzun ahal izateko.
V	Pertsona profesionalak partekatutako proiektuarekin.
VI	Euskal ikus-entzunezko sektorearekin eta erakunde akademikoekin lankidetzat etengabea den eta handitzen ari den sormenerako.
VIII	Berrartutako inbertsioen politika .
VIII	Kudeaketa aurreratua eta jasangarria.



3. Ildo estrategi- koak

1 ZERBITZU PUBLIKOAREN EREDUA

norantza

EiTBren eskaintza gainerako hedabideetatik bereizten da zerbitzu publikoaren izaera duelako lehiakortasun handiko testuinguru mediatiko batean.

EiTB sortzeko legean bere eginkizuna eta ezaugarri bereziak jasotzen dira. EiTBren bidez kotasuna honako hauetan datza: euskal gizartearen berezko edukiak eskaintzen ditu, euskarazko komunikabideen normalizazioari laguntzen dio, hurbilekoa azpimarratzen du eta edukien ikuspegi propioa lantzen du, gizarte-kohesioa bultzatzen du eta informazioa jasotzeko zein parte hartzeko eskubidea garatzeko tresna da.

Horrek ondokoa esan nahi du:

- Telebista, irrati eta interneteko kanalen bitartez bere eginkizuna bete ahal izateko, EiTBren eskaintzak honelakoa izan behar du:
 - *Gehiengoarentzat*: biztanle guztientzat, multimedia-edukiekin.
 - *Orotarikoa*: informazio, kultura, hezkuntza eta entretenimenduko beharri-zanak aseko dituen programazio anitz eta orekatuarekin. Nitxo-ikusleentzako edukiak ere izango ditu.
 - *Jasangarria*: finantzabide nahikoa izan behar du enpresa-kostuari aurre egiteko, aurrekontu publikoen, publizitate-sarreraren eta salmenten bidez.
 - *Arduratsua*: kudeaketa eredugarriarekin, gobernu-organoen eta gizartearen aurrean gardentasuna erakutsita eta gizarteari baliabide publikoetan egindako inbertsioarekiko proportzionala izango den balioa itzulita.
- EiTBk gainerako komunikabideek eskaintzen ez dituzten interes orokorreko edukiak eratu behar ditu emankizunen zerrendak.
- EiTBk ahalegina egin behar du euskarazko eskaintza sustatzeko; izan ere, kontuan hartu behar du gizarteak berak pauso handiak eman dituela euskararen jakintzaren eta erabileraren arloan.
- EiTBk ahalegin gehigarria egin behar du, batik bat, ikusle haur eta gazteei dagokienez, eta gaikako kateen bidez berariazko eskaintza eskuataratu behar die.
- EiTBk telebista, irrati eta interneteko edukiak garatzean sormena eta gizarte-kohesioa errazten duten balioen esparrua orekatu behar ditu. Hauek dira funtsezko balioak:
 - Demokraziaren, bizikidetzaren eta giza eskubideen defentsa egitea.
 - Berdintasun-printzipioarekiko eta politika-, erlijio- gizarte-, kultura- eta hizkuntza-aniztasunarekiko begirunea.

- Emakume eta gizonen arteko berdintasuna.
- Elkartasuna eta gizarte-garapena.
- Ingurumenarekiko begirunea eta horren zaintza.
- Duintasuna eta pertsonen ohore eta ospearekiko errespetua.
- Prestakuntza, ahalegina eta hobekuntza pertsonala.

Ardatz estrategikoan interesatutako stakeholder-ak: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra eta Programa Kontratuaren 11 konpromisoekin lotutako interes-taldeak: ikusleak, hainbat arlotako eragileak (kultura, kirola, ekonomia, ingurumena, emakume eta gizonen arteko berdintasuna, irakaskuntza, gizarte-koheretza eta giza eskubideen garapena), ikusentzunezkoen sektorea, kanpoko hornitzaileak eta beste batzuk.

noraino

Zerbitzu publikoaren eginkizuna betetzen dela bermatzeko ebaluazio-tresnak sistematizatzea da erronka estrategikoa.

	Helburua 2017/2020	Emaitzak			
		2017	2018	2019	2020
<ul style="list-style-type: none"> Zerbitzu publikoaren ezaugarri behinenen inguruan hartutako konpromisoen betetze-maila. Programa Kontratuaren Jarraipen Batzordearen balorazioa. 	Balorazio egokia	betetzen da (1)			
<ul style="list-style-type: none"> Kalitatezko informazioa bermatzearekin lotutako konpromisoen betetze-maila. Programa Kontratuaren 3. konpromisoa. 	Organo ebaluatzailea:	betetzen da (1)			
<ul style="list-style-type: none"> Euskal kultura hedatzearekin lotutako konpromisoen betetze-maila. Programa Kontratuaren 5. konpromisoa. 	Programa Kontratuaren	betetzen da (1)			
<ul style="list-style-type: none"> <i>Audientziaren</i> adierazleen inguruan hartutako konpromisoen betetze-maila. 	Jarraipen Batzordea.	betetzen da (1)			
<ul style="list-style-type: none"> <i>Prestigioari</i> lotutako adierazle kualitatiboen inguruan hartutako konpromisoen betetze-maila. 		betetzen da (1)			

(1) 2017ko betearazpen txostena – Euskal Irrati Telebista (EITB) erakunde publikoaren 2017 Programa Kontratu Jarraipen Batzordearen bilera. Bilbo, 2018-03-07.

I nondik

EiTBk zerbitzu publikoaren eginkizunari hertsiki lotuta garatzen du bere plan estrategikoa.

Ildo estrategikoen helburuak zerbitzu publikoaren edukiak garatzera eta EiTBren enpresa-jasangarritasuna ahalbidetzera bideratuta daude.

Programa Kontratuari lotutako proiektua. EiTBren Programa Kontratuan garatutako Zerbitzu Publikoaren ezaugarriak betetzea.

- 1. proiektua:** Komunikazio eta marketin korporatiboaren eredu berria.
- 2. proiektua:** *EiTB Kultura* kateak sareen eta kulturaren arloko komunitateen/interes-taldeen estimua duen **dibulgaziozko proiektu transbertsal indartsu** bat izan behar du.
- 3. proiektua:** EiTBren komunikabide guztietan **emakumezkoen kirola normalizatzeko ekintza-plana** , berdintasun-planean jasotako helburua sendotuz.

2 LIDERRAK INFORMAZIOAN

norantza

Sinesgarritasuna, objektibotasuna/neutraltasuna eta aniztasuna ezaugarritzat izango dituen kalitatezko eskaintza informatibo multimedia egiteko konpromisoari eutsi egiten dio EITB taldeak.

Zerbitzu publikoa izateak berekin dakarren oinarrizko betebeharrak bat da EITBk korporazio multimedia lider izaten jarraitzea albistegiaren alorrean, goi mailako eskaintza profesionalarekin.

Horrek ondokoa esan nahi du:

- EITB Taldearen Kontseilu Editorialak zuzendaritza editorial profesional eta independentea sustatzen du; informazio-agenda propioa, betea eta interes handikoa garatzen du eta informazio-iturririk onenak baliatzen ditu.
- Informazio oso eta irekiaren eskaintza alde batera utzi gabe, EITBk Europar Batasuneko esparru ekonomiko, sozial eta politikoaren erreferentziaren alde egiten du.
- EITBk kazetaritza onaren abiaburuak sustatzen ditu: informazioa iritzitik bereizten du eta honako oinarrizko printzipio hauek garatzen ditu: egiatasuna, informazioaren oreka, inpartzialtasuna, neutraltasuna, independentzia eta sinesgarritasuna. Era berean, informazio osoa eta testuinguru zehatz baten barrukoa sustatuko da. Irudi eta hizkuntza ez-sexistak erabiltzeaz arduratuko da.
- EITBk informazioa ekoizteko baliabide guztiak erabiltzen ditu agenda propioa lortzeko komunikazio-talde multimedia batek izan behar dituen euskarri guztietan. Bestalde, lankidetzan aritzeko proposamenak lantzeko prest dago euskal komunikabideen sektoreko eragileekin.
- EITBk sinesgarritasun handia eta estilo propioa duten profesionalak ditu. Era berean, eztabaida-saioetan parte hartzen dutenak beren iritzien balioagatik, komunikatzeko duten gaitasunagatik, panelaren aniztasunagatik eta arlo jakin batean duten jakintzagatik aukeratzen ahaleginduko da.
- EITBk kazetaritza analitikoa lantzeko guneak sustatzen ditu, gertaerez eta inguruabarrez jakin eta horietatik erator daitezkeen ondorioak aztertzeko. Bestetik, eguneroko abagune informatibotik at dauden intereseko gaiei buruzko albistegiak sustatzen ditu. Demokrazia aurreratuaren printzipioen aurka doazen arraza-, genero- edo bestelako estereotipoak saihestuko ditu.
- EITBren eredu informatiboa kanal anitzekoa eta multimedia da argi eta garbi. Euskarazko eta gaztelarazko telebista, irrati eta interneteko euskarri eta kanalak eginkizun informatiboaren erreferente gisa kokatzen ditu.

Ardatz estrategikoan interesatutako stakeholder-ak: Herritarrak oro har (informazio-eskubidea, ohorerako eskubidea, erantzuteko eskubidea eta zuzenketa-eskubidea) eta eduki informatiboa sortzen duten gizarteko eragileak. Eusko Legebiltzarra.

noraino

Euskadin multimediako komunikazio-talde lider izaten jarraitzea eta herrialdeko informazio-erreferentzia garrantzitsuena izatea dira erronka estrategikoak. Adierazle nagusiak

	Helburua	Emaitzak			
	2017/2020	2017	2018	2019	2020
EiTB taldea kontsumo-ordu garrantzitsuetan albistegi-ordu gehien eskaintzen dituzten komunikabide orotarikoaren artean kokatzea.	> 4.500 ordu	4.750			
<ul style="list-style-type: none"> Informazio-dukien eskaintzan 					
Informazio orokorraren kontsumoa EiTB.EUS-en:	>1.500.000	1.782.341			
<ul style="list-style-type: none"> Erabiltzaile bakarrak hilabetean 					
Informazio orokorraren kontsumoa EiTB.EUS-en kontsumo osoarekiko.	50%-60%	59,7			
Lidergo-rankinga euskarriko euskarazko eta gaztelarazko eskaintza batua kontuan hartuta:					
<ul style="list-style-type: none"> Telebistako informazio-eskaintza elebiduneko edukian (TB+EG, astelehenetik igandera) Irratiko informazio-eskaintza elebiduneko edukian (EI+RE+RV 7:00/10:00, astelehenetik ostiralera) 	Lidergoa telebistan eta irradian	Postua 1goa ETB Postua 1goa EUSKO IRRATIA			
Balorazio kualitatiboa Euskal Herrian kontsumitzen diren gainerako komunikazio-taldearen aldean.					
<ul style="list-style-type: none"> EiTBko albistegiaren profesionaltasun-ezaugarriak gainerako eskaintzarekin alderatuta; sinesgarritasuna, objektibotasuna/neutraltasuna eta aniztasuna. 	Ezaugarrietan lidergoa duen komunikazio-taldea	Postua 1goa ETB Postua 1goa eta 2rena EUSKO IRRATIA			

I nondik

EiTBk kazetari-talde sendoa dauka, informazioari lotutako profesionalen eredu mistoz osatua, hots, kazetari adituak eta orotarikoak, eredu efizienteena bermatzeko.

Erredakzioaren egitura hiru egoitzatan banatzen da (Bilbo, Donostia, Gasteiz); Iruñean, Baionan, Bartzelonan eta Madrilen ordezkariak ditu bai eta korrespontsaliak ere Bruselan eta munduko informazio-gune nagusietan; horri guztiari esker, bere ikuspegi informatibotik lantzen ditu edukiak.

- 1. proiektua:** Albistegiak geure agendarekin egitea gure eskaintza erreferentziakoa izango dela ziurtatzeko, esklusibak eta analisi propioak lortzea (*EiTB Focus* seriea bereziki zainduz) eta hauteskundeen aurreko garaietan eta hauteskundeetan neutraltasuna erakustea.
- 2. proiektua:** eitb.eus interneteko informazio-erreferentzia bilakatzea etengabe informazio eguneratua emanez kolaboratzaile, sare sozial eta erabiltzaileentzako zerbitzu pertsonalizatuaren erabilera aurreratuaren bidez.
- 3. proiektua:** Erreferentziako komunikatzaileak sustatzea kalitatezko kazetari-tza lantzeko profesionaltasuna eta independentzia ezaugarri dituenak.

3 EUSKARAZKO EDUKIEN ESKAINTZA

Inorantza

Azpimarratzekoa da euskal gizartearen hizkuntza-profilaren bilakaera; hiru hamarkaden barruan gizarte batik bat gaztelaniaduna izatetik gizarte batik bat elebiduna izatera igaro baita. Gaur egun euskaraz ez dakien edo euskaraz gutxi dakien populazio-taldea hirurogei urtetik gorakoek eta populazio migratzaile berriek osatzen dute batik bat.

Alabaina, komunikabideen ikuspegitik bada azpimarratzekoa den datu bat, alegia, euskararen ezagutzaren pausoz pausoko hazkuntzaren eta bere erabilerearen artean dagoen desadostasuna. Gaur egun, familia-unitatearen barruan, euskararen erabilera-indizea etxeetan % 13,5 ingurukoa da, eta euskararen eta gaztelerearen erabilera elebiduna, berriz, % 7,5 ingurukoa. Gaztelera, ordea, ohikotasunez erabiltzen den hizkuntza da etxean % 80 inguruan; portzentaje hori egonkor mantendu da azken hogeita hamar urteetan, eta etxe berrietan eutsi egiten zaio joera horri.

Bestalde, komunitate euskaldunak espektro soziologiko oso zabala du, interes eta gustu oso desberdinak, eta komunitate horren euskarazko komunikabideen kontsumoa asko aldatzen da kontsumo hori indibiduala edo familiako den arabera. Hori dela eta, EiTbren euskarazko eskaintzak izaera eta mota askotako edukiak jaso behar ditu, eta nitxo-interesak ere asebate behar ditu.

Planteamendu anitz eta orotariko horretatik eratorritako telebista-programazioan desberdinak diren publikoei zuzendutako programa-sorta zabal bat sartzen da; horrenbestez, eta kontuan izanik telebistak familiarekin batera kontsumitzen den baliabide izaten jarraitzen duela, aurrez onartu behar da eskaintzen den oro ez dela denen gustukoa izango.

Irratiak, ordea, xede-entzule zehatzagoei zuzendutako programazioak egiteko aukera eskaintzen du, EiTbren emisoreen gai-banaketak ahalbidetu egiten baitu hori. Hala, publiko gaztearentzako edukiak Gaztea emisorearen inguruan biltzen dira, eta publiko helduarentzako edukiak Euskadi Irratiak (orotarikoa) eta EiTbmusika (musikari buruzkoa) emisorek jasotzen dituzte.

EiTb.EUS-ek eta EiTbko edukiekin lan egiten duten beste plataformek informazio-, dibulgazio- eta entretenimendu-edukien politika euskaraz eta internet bidez garatzen dute. Ekipamendu finko edo mugikorren bidez egiten den kontsumo pertsonalerako euskarazko edukiak sortzeko eta zabaltzeko sistema sendoa da. (4. ardatzean eredu multimedia garatzen da).

EiTbk euskararen erabilera normalizatzeko duen eginkizunari dagokionez, lau oinarritzko alderdi daude:

- i) *Euskara herrialdearen normalizazioarekin lotzea, tradizioa osatzen duten elementuen gainetik.*
- ii) *Euskararen gizarte-esparrua osatzen duten erakundeekin eta entitateekin harreman egonkorra izatea eta haiekin lankidetzan aritzeko guneak zehaztea.*
- iii) *Agerian jartzea geroz eta gehiago direla euskaraz normaltasunez adierazteko gai diren gizarte-liderrak, profesionalak, herritarrak, gazteak, eta umeak. Agerian jartzeko politika hori bereziki garrantzitsua izango da gaztelerazko kanaletan.*
- iv) *Erakundeekin lankidetzan aritzea gazteleraz hitz egiten den eremuetan euskararen erabilera sustatzeko kanpainetan.*

EiTBk aktiboki jardungo du gizarte elebidun baten normaltasunaren alde, eta era berean, komunikazio-zerbitzu erabat euskalduna nahi duten euskaldunentzat edukien eskaintza oso bat izango du. EiTBren sortze Legean jasotzen den oinarrizko ardatz hori gauzatu ahal izateko eutsi egingo zaio 2016-2019 aldirako Programa Kontratuan ezarritako kateen profilari. Horrek ondokoa esan nahi du:

- ETB1-ek eutsi egingo dio publiko mota guztientzako euskarazko telebista-eskaintza ireki eta osoari, eskaintza hori Hiru3-k hurrei zuzentzen dien berariazko edukien eskaintza jarraituarekin osatuko da, telebista bidez eta internetez.
- ETB1 arduratuko da telebistako kirol-emankizunez, Administrazio Kontseiluak onartu zituen eta indarrean dauden Programazio Ildo Orokorrei jarraikiz.
- Euskarazko irratari dagokionez, Bizkaiko hedadura zabaltzeko beharrezana antzematen da, lurralde historiko horretan baitago hazteko aukerarik handiena. GAZTEAK gazteen entretenimendu eta ozartasunari dagokien komunikazio-erregistroari eutsi behar dio.
- Interneten esparruan EiTBk hobetu egingo ditu bere APP-ak, eta behar izanez gero, aplikazio berriak garatuko ditu hurrei eta publiko gazteari zuzendutako euskarazko edukietarako (Hiru3, Gaztea, Goazen,...)
- EiTBk proaktiboki sustatuko ditu euskararen erabilera sare sozialetan eta ikus-entzunezkoen ekoizpena eta banaketa *EiTB Nahieran*, EITB.EUS-en eta euskal publikoarentzat interesgarria den beste edozein plataforma digitaletan.
- Gaztelania komunikazio-hizkuntza duten euskarriek (ETB2, Radio Euskadi eta Radio Vitoria) lekua egingo diote euskaraz egindako adierazpenei, modu naturalean, eta era pedagogikoan jardungo dute euskararen erabilera eta gizarte elebidunaren normalizazioa sustatzeko. Hala, modu positiboan ikusiko da euskaldunen presentzia normalizatzea eta orokortzea, eta euskararen gizarte-prestigiosa indartuko da.

Ardatz estrategikoan interesatutako stakeholder-ak: Herritarrak oro har eta hizkuntza-ren sustapenean eta normalizazioan interesatutako eragileak.

noraino

EiTBk euskaraz kontsumitzeko ohitura bultzatu nahi du, hizkuntzaren normalizazioan eragitearren.

	Helburua	Emaitzak			
	2017/2020	2017	2018	2019	2020
ETB1 eta ETB3 kanaletan eguneko metatutako audientzia (milaka ikusle, Kantar Media).	300	308			
Euskadi Irratia eta Gaztean egunero metatutako audientzia (milaka entzule, CIES).	190	202			
ETB1-ean eguneko metatutako audientzia 20:00-23:30 orduen tartean (milaka ikusle, Kantar Media).	Urteko hazkuntza % 5 (Oinarria 2016)	131			
Interneteko euskarazko edukietan sartzen diren erabiltzaile bakarrak hilean. Milaka erabiltzaile (Iturria OJD eta/edo, kasuan kasu, ComsCore edo neurgailu ofiziala).	urteko + % 10 2016 oinarritzat hartuta (247,7)	305 (23,6)			
EiTBko euskarazko App-etara sartzen diren erabiltzaile bakarrak hilean. Milaka erabiltzaile (Iturria OJD eta/edo, kasuan kasu, ComsCore edo neurgailu ofiziala).	Hazkuntza	5.169 (Hiru + Gaztea) OJD			
EiTBko ikus-entzunezko kanaletan sortzen diren hautemate-ezaugarriei buruzko balorazio kualitatiboa ¹ : <ul style="list-style-type: none"> EiTBko komunikabideetan erabiltzen den euskararen gaineko batez besteko gogobetetasunari dagokionez (puntuazioa 0-10). Euskarri eta kanaletan euskarak izan duen aurrerapenari buruz audientziak daukan iritziari dagokionez (puntuazioa 0-10). 	Asebetetze-maila oso ongi/altua.	8,26			
		7,33			

¹ Iturria: *urtean behin egiten den ikerketa soziologikoa.*

I nondik

1. proiektua: ETB1-eko edukien zuzendaritza bat sortzea talde sortzaileak dinamizatzeko eta telebista gehien kontsumitzen den orduetan finkatutako edukien markak sortzeko, batez ere, Acces GE-2 eta *prime time*-en, 20:00/23:30 orduen tartean metatutako audientzia handitu dadin.

2. proiektua: Haurrentzako euskarazko eskaintza interesgarri bat finkatzea ugaria izan ez arren estrategikoa den publiko bati zuzendutako zerbitzu publikoaren eginkizun gisa.

3. proiektua: Euskaraz jarduten duten youtuber-en presentzia handitzea, Gazteko DJ-ak Youtube bidezko musika-preskriptoreak bihurtuta.

4. proiektua: Radio Euskadi eta Radio Vitoria irratieta euskararen unibertsoa ageriko egitea. Horretarako, komunikazio-eremu euskaldunetako eragileekin kolaborazioak egingo dira Euskara-Berri, Euskararen unibertsoa, Alea eta gisako espazioen bidez.

5. proiektua: Euskararen normalizatorako ekimen berriak, hala nola *Euskaraldia* Gipuzkoa Lab, eta abar *babestea eta haiekin konprometitzea*; *web-serieen* proiektu-pilotuak aktibatzea.

4 ERALDAKETA DIGITALA

Inorantza

Eraldaketa digitalak gairak egiten du hasiera batean teknologia-proiektu bat izan behar zena, eta geroz eta lagunkoiagoa, moldakorragoa eta azkarragoa da. “Teknologia desagertzen denean iristen da bere une gorenera” (Johny Ive, Apple-en Diseinu lehendakariorde exekutiboa). Digitalki heldutasunera iritsi den enpresa bat izateko estrategia digital argia behar da, aldatzeko eta gauza berriak asmatzeko gaitasunari balioa ematen zaion kultura sustatzen duten liderren babesarekin.

Komunikazio-enpresek badakigu konektatuta dauden pertsonen kopurua esponenzialki ari dela hazten eta teknologia naturalki egin dutela bere; kontsumo-ohiturak erabat aldatu dituzte, enpresek baino lehenago; hori dela eta, eboluzionatzea eta eraldatzea dagokigu. Produktuen paradigma batetik erabiltzailea ardatz duen zerbitzuen paradigma batetara goaz.

Horrek beharrezkoa egiten du estrategia digitalak ezartzea, eta erakundearen eraldaketa kulturala gauzatzea. Gauzak egiteko beste modu batzuk, balio handiagoko negozio-ereduak sortu ahal izateko. Ohiko negozioan (telebista-irratia) presentzia handia ziurtatzeaz gain, estrategia digitalaren ezarpenean uste osoa duten prozesu integratuen aldeko apustua egiten dugu .

Lehiaketa-eremu berrian gure erakundea berrasmatu egin behar dela esan nahi du horrek, eta horretarako, soluzio teknologiko eraginkorrak behar ditugu eta erabiltzaile zorrotzei edukien esperientzia partikularra eskaini behar diegu. Proiektuaren erdigunean komunikabideak konektatutako pertsonarekin duen zuzeneko harremana ezartzen da; pertsona horiek fidelizatu egin nahi dira sortzen ditugun edukiei lotutako komunitateen bidez.

Gure prozesuak kontsumo-ereduetara egokitu behar dira eta, beraz, pertsonen jokaraz eta joerak sakonki ezagutu behar ditugu, kontuan izanik konektatutako pertsonak aktiboak eta sortzaileak direla, iritziak dituztela, partekatu, kritikatu eta aukeratu egiten dutela eta komunitateetan mugitzen direla.

Gure ekipoek eta prozesuek kontsumoa aztertzeko mekanismoak eta tresnak behar dituzte gure erabiltzaileen ohitura-aldaketak hauteman, ezagutu eta aztertzeko eta, modu jarraitu eta berrituan haien eskakizunak asebetetzen dituzten produktuak eskaintzeko, baita eskatu aurretik ere.

Erabiltzaileen erregistro bat izan behar dugu komunikabideak harreman zuzena izan dezan konektatuta dauden eta fidelizatuta dauden pertsonekin (EiTBren harreman-eredu berri batekin sortzen ditugun edukiei lotutako komunitateen bidez gauzatzen da fidelizazio hori). Hala, eduki erraldoiak dituzten operadoreengatik bereiziko gara, komunikazio-eremu euskaldunarekin lotutako euskarazko eta gaztelarazko edukiekin, eta, nolana ere, gertaera eta gai globalei geure ikuspegia emango diegu.

Ikuspegi teknologikotik EITBk edukien plataforma propioak (EiTB.EUS –APP-ak) gaitu nahi ditu telebista eta konektatutako gailu finko edo mugikorretarako. Interneteko plataforma masiboetan (Youtube, Facebook, Instagram, Spotify, Itunes, eta abar) edukiak argitaratzea bat dator audientzia maximizatze eta esperientzia digital berriak eratzeko estrategiarekin; bi bide horietan EITBren nortasun korporatiboari eutsiko zaio. Horrenbestez, plataformen eredu mistoa gailentzen da, edukien ikuspegi korporatibo bat, eta EITBren plataformen barruan eta haietatik kanpo eduki-ibilbidearen ikuspegi aurreratu eta integratzailea duen argitaratze-politika bat.

Argitaratze-eredu horrek modalitate berri bat eskaintzen digu inpaktu sozialari dagokionez bai eta harreman-inpaktuari dagokionez ere. Modalitate horrek Euskal Herrian eta euskal diasporan eraginkorra izan behar du, euskal gizarte osoari zuzendutako zerbitzu publikoa garelako. Bestalde, ez dugu atzean utziko gure edukietara sortzen dugun interesagatik sar daitekeen publiko globala.

EiTBko edukiak sortzen dituzten ekipo guztiek, barnekoek zein kanpokoek, beharrezko ezagutza izan behar dute eduki horiek diseinatzen diren unetik kontsumo linealeko eta ez linealeko banaketa-leihoak aurreikusteko. Hala, planifikatu egingo da sare soziale-tako eta geure zein hirugarrenen plataforma digitaletako argitalpena, EITBren irizpideei jarraikiz.

Eraldaketa digitalerako prozesuan EITBk erronka berriei heldu beharko die; hala, kon-tuan izan beharko ditu inguru digitalera egokitutako prozesuetan oinarritutako lan-bide- eta antolakuntza-garapenerako ikuspegi berriak eta izaera digitaleko lanbide berrien txertaketa.

Horrek ondokoa esan nahi du:

Zuzendaritza Nagusiak gidatuko du estrategia digitala. Eraldaketa digitalerako proiektua talde transbertsal batek kudeatuko du, zuzendari arduradun batekin. EITBko sozietate guzietan proiektu nagusitzat joko dute. Hauek dira EITB digitalaren edukien oinarrian dauden printzipioak:

- ✓ **1. printzipioa:** EITBk eredu integratu baten aldeko apustua egiten du. Hala, telebista eta irratia-errenegozio konbentzionalaren prozesuetan integratuko den estrategia digitalean sinesten du.
- ✓ **2. printzipioa:** Euskarri digitaletako zuzendaritza editoriala bat dator ETB eta Eusko Irratiak sortutako edukiekin.
- ✓ **3. printzipioa:** Argitaratze-politikak, edukien ibilbideak eta sare soziale-tako presentziaren dekalogoak EITB talde osoan dute eragina.
- ✓ **4. printzipioa:** Birpentsatu egin behar da eremu digitalera zuzendutako baliabide ekonomiko, giza baliabide, eta baliabide teknikoek izango duten neurria. Nabigazioa eta kalitate teknologikoa hobetu behar dira eta aurrez grabatutako emanaldien kontsumoa erraztu behar da.
- ✓ **5. printzipioa:** Profesionalak ingurune berrirako prestatu behar dira, talde transbertsalak dimentsionatu behar dira, profil berriak sartu behar dira eta edukiak audientzia digitalera egokitu ahal izateko beharrezko antolakuntza-aldaketa sustatu behar da.
- ✓ **6. printzipioa:** Itunak ezarri behar dira Euskal Herriko erakunde garrantzitsuenekin: unibertsitateak, biltzar-jauregiak, kultura-guneak,

kirolarekin lotutako erakunde, plataformak eta elkarteak, eta abar. Helburuak:

- Nitxo murriztuko publikoentzat garrantzia handiko jazoeren *streaming* politika.
- Euskal Herrikoak diren edo Euskal Herriarekin zerikusia duten edukien sare bat.

Printzipio horien garapenak lagundu egin behar du 2017-2020 aldian EiT Bren eraldaketa digitalera zuzendutako pauso berriak ematen. Pauso horien artean honako hauek daude:

1. Zuzendaritzaren interneteko edukien **argitalpen-politika** korporatiboa, kanal propioetan (EITB.EUS eta APP-ak: Hiru, gaztea, Goazen, ...) eta hirugarrenen kanaletan (Youtube, Twitter, Facebook, Instagram, Itunes, Spotify, eta abar.) aplikatuko dena, irizpide hauetan oinarrituko da:

- 1.1. EiT Bren estrategia korporatiboa aintzat hartuko duen argitaratze-politika bat sortuko da, eta EiT Bren eta bere Sozietateen eduki eta programa guztiei aplikatuko zaie.
- 1.2. Plataforma propioetan eta hirugarrenetan argitaratutako edukiek eta programek behar bezala seinaleztatuta egon behar dute eta erreferentzia egin behar diote EiT Bri, edo, kasuan kasu, programaren markari. EiT B taldearen ospea sustatu behar da.
- 1.3. Ikuspegi funtzional batetik begiratuta, ulertzekoa da programa jakin batzuei lehenetasuna ematea, beren ezaugarriengatik eta jarraitzaileak izateko duten potentzialtasunagatik EiT Bren eragina eta ospe ona sustatzen badute. Horiekin eskaintza digital handi eta aitzindari bat egin behar da plataforma propioetan eta hirugarrenetan; emaitzak neurtzeko sistemak eduki behar dira, eta behar den moduan, azpimarratu egin behar da EiT Bren produktuak direla.
- 1.4. Argitaratutako guztia neurtu eta ebaluatu egin behar da, eta horren arabera, ikasi beharrekoa ikasi behar da.

2. Estrategia digitala ezarri ahal izateko erakundeak behar dituen gaitasunak sustatzeko, garatzeko eta zabaltzeko inbertsioa egin behar da, eta berrikuntza sustatu behar da.

- 2.1. Inguru digitalak komunikabideei eskaintzen dizkien aukerei eta arriskuei buruzko kontzientzia-kanpaina bat egin behar da.
- 2.2. Eraldaketa digitalerako proiektua honako hauei aurkeztu behar zaie: langileen ordezkari, Administrazio Kontseiluari, zuzendariei, kudeatzaileei, plantillari, ekoizleei eta bereziki Erredakzioari; bestalde, edukien ibilbidea eta sare sozialetako presentziaren dekalogoia sozializatu egin behar dira.
- 2.3. Eraldaketa digitalerako prestakuntza-plana egin behar da.

- 2.4. Profesional eta talde proaktiboenak hauteman eta identifikatu behar dira eta haien ekimenak babestu behar dira.
3. Aldaketak eskalaz eskala egingo dira; hala, eremu digitalean gauzatutako ekintzek enpresa-inpaktu positibo eta balizkoak badituzte erakunde guztira zabalduko dira.
 - 3.1. Pautei jarraikiz, irrati eta telebistako edukien argitalpena gailu mugikorretara egokituko da: eduki laburrak.
 - 3.2. Breaking news: 24/ 7 albistegi-zerbitzu etengabea irratian eta interneten.
 - 3.3. Gaztea digitala: Gazteako DJ-ak *youtuber* bihurtzea, musika-albisteei eta estilo berriei buruzko orientazioa eta preskripzioa emateko, integratutako talde transbertsala, berariazko eduki digital berriak, ahal dela automatizatuak, streaming bidezko emisioa. App Gaztea.
 - 3.4. Entretenimendua euskaraz: web-serieak eta *youtuber*-ak
 - 3.5. EITB.EUS-en euskarri horrentzako iritzien leihoa txertatuko da, idatzizko testu bidezko edo bideo bidezko kolaborazio berriein, telebistako eta irrati ohiko kolaboratzaileen artean iritzien panel anitza aukeratuz.
 - 3.6. Sustapen eta publizitate korporatiborako eta produktuen publizitaterako politikak.
 - 3.7. Enpresa espezializatuekin *big data* azterketa-ereduak ezartzea eta erabakiak hartzeko ezagutza-ildo berri bat sortzea.
 - 3.8. EITBren eskaintza osoaren audientzia-sistema berriak txertatzea plataforma propioetan eta hirugarrenetan.

Ardatz estrategikoan interesatutako stakeholder-ak: Herritarrak oro har eta aurreratutako zerbitzu digitaletan interesa duten eragileak. Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra eta komunikabideetako profesionalak.

noraino

Izaera kuantitatibo eta kualitatiboko helburuak ezartzen dira. Alderdi kualitatiboa ebidentzien bidez eta proiektuen garapena kudeatzen duen Zuzendaritza Taldearen balorazio bidez ebaluatuko da.

Helburua	Emaitzak				
	2017/2020	2017	2018	2019	2020
Eraldaketa digitalerako mugarriak ezartzea. Kalifikazioa. 1A Benchmarking – 1B diseinua – 2 ezarpena (%) – 3A egin da, baina irismena ez da erabatekoa – 3B eginda. Mugarriak: A - Argitalpen-politika B - Breaking News C - Erabiltzaileen erregis-	E - Big data F - Erredakzioa taldekatztea	A: 1B B: -- C: 1A			

troa D - Gaztea Digitala	G - Antolaketa eredua H - Sentsibilizazioa	D: 1B E: 1A F: -- G: -- H: 1B			
<ul style="list-style-type: none"> Abenduaren 31ra arte deskargatu diren EiTbren APP kopurua. (IOS+Android) 	Hazkuntza	180.043			
<ul style="list-style-type: none"> Diferitutako audientzia konektatutako telebistaren bidez. 	Hazkuntza	167.000			
<ul style="list-style-type: none"> Internet bidezko audientziari dagokionez plataforma propioen eta hirugarrenen plataformen arteko ratioa. 	%20-%40	%23,4 (direct)			

nondik

1. proiektua: Talde arduratsu, jakintza-alor anitzekoa eta transbertsala sustatzea, lidergo argiarekin eraldaketa digitalaren estrategia garatu eta ezartzeko. Horretarako, pertsonak trebatuko dira eta proiektuaren komunikazioa sustatuko da EiTb barruan eta EiTbtik kanpo.

2. proiektua: Antolakuntzako aldaketak egitea erredakzio-taldeetan

3. proiektua: Multimediako talde transbertsalak sortzea edukien ildo berrietarako; hor sartzen dira, besteak beste, 24/7 albistegi-zerbitzu etengabea eta GAZTEAren eredu aurreratu bat.

4. proiektua: Argitaratze-politika euskarri propioetan eta hirugarrenetan formalizatzea eta ezartzea, bai eta edukien ibilbidea eta sare sozialetako presentziaren dekalogo ere.

5. proiektua: Erabiltzaileen erregistro iraunkor bat formalizatzea eta aktibatzea harreman zuzena izateko eta fidelizazioa sortzeko. 8.1 proiektuarekin bateratua (2018 azaroa)

6. proiektua: EiTbren plataforma digitaletan enpresa onenen neurriko zerbitzuen prestazioa eta erabiltzaile-esperientziak bermatzea.

7. proiektua: Sistema normalizatu bat aktibatzea gazteei zuzendutako EiTbren edukiak produktu *transmedia* edo interneteko erabiltzaile berriei oso ondo egokitutako edukiak izan daitezten.

5 PERTSONA PROFESIONALAK PARTEKATUTAKO PROIEKTUAREKIN

norantza

Erakunde profesional heldua gara, profesional adituez osatutakoa, etorkizunari ilusio handiz begiratzen diogu, eta Euskal Herriko ikus-entzunezko sektorean erreferente eta lider izaten jarraitu nahi dugu.

Taldea egungo eta etorkizuneko errealitate digitalera egokitzea ahalbidetuko duen antolakuntza- eta gizarte-aldaketa gidatzeko prest gaude.

Aipatutako eraldaketa hori arrakastaz gauzatzeko honako hauek gauzatu behar ditugu:

- *Langileen lege-ordezkaritzarekin batera lan egitea beharrezkoak diren antolakuntzazko eta egiturazko aldaketak egin ahal izateko harreman-esparru normalizatu batean.*
- *Komunikaziorako barne-plan bat izatea plantilla osatzen dugun guztiok norabide berean aurrera egin ahal izateko, gardentasunarekin eta EiTb proiektuaren ikuspegi partekatuarekin.*
- *Garapen profesionala sustatzea eta gure profesionalei beharrezko lan-bide-prestaketa eskaintzea erakundeari beren balio erantsia eman diezaioten.*
- *Laneko giro ona sustatzea. Gure erakundeetan pertsonak funtsezkoak dira, eta baldintza egokiak sortu behar ditugu erakundeko pertsonak, konprometituta egoteaz gain, motibatuta egon daitezen.*
- *Eragile politiko eta sozial nagusiei aldaketaren ikuspegi profesional bat helaraztea, subjektu garrantzitsuak direlako eta EiTbrentzat haien ekarpena ezinbestekoa delako erakunde akademikoekin eta unibertsitatearekin batera garapen digitala behar bezala gauzatzeko.*

Bestalde, eraldaketa digitalerako subjektu garrantzitsutzat jotzen ditugu eragile politiko eta sozial nagusiak eta haien ekarpena beharrezkoa da; hori dela eta, komunikabideen aldaketaren ikuspegi profesional bat helarazi behar zaie. Halaber, erakunde unibertsitario eta akademikoen lankidetzak behar dira.

Aldaketa- eta eraldaketa-prozesu horri plantillarekin batera ekin beharko zaio, eta plantillaren ordezkariekin adostasuna eta akordioa erdietsi beharko dira jarraian zehaztutako materia hauetan:

- ✓ **Eraldaketa digitala. Ezagutza eta sentsibilizazioa.**
- ✓ **Gaitasunen profila.**
- ✓ **Antolaketa-esparru berriak.**
- ✓ **Plantilla-plazak.**
- ✓ **Lan-harremanak.**
- ✓ **Laneko giroa.**

Laburbilduz, EITBk ilusio handiz hartzen du bere gain aldaketa estrategiko eta sozialaren lidergoa, eta bere helburua da antolaketa-esparru berri batean Euskal Herrian lider izaten jarraitzea ahalbidetuko diguten baldintzak erdieste.

Ardatz estrategikoan interesatutako stakeholder-ak: Plantilla, sindikatueta ordezkariak eta EITBn trebatzeko eta/edo lan egiteko interesa duten pertsonak. Eusko Jaurlaritzaren, Eusko Legebiltzarra eta gizartea oro har.

noraino

Ardatz honekin lotuta ezartzen diren proiektu estrategikoen barruan honako hauek aurreikusten dira: enplegu-deialdi publikoak aldi baterako plantilla murriztu ahal izateko; lan-taldeak sailkapen- eta garapen-profesionalaren eredu berri baterako, eta gizarte-harremanen ziklo berri bat plantillaren ongizatea xede duten aktibazio-planekin.

	Helburua	Emaitzak			
	2017/2020	2017	2018	2019	2020
▪ Batezbesteko aldi baterako plantillaren eta batez besteko plantillaren arteko ratioa.	<% 18 2020. urtean	%23			
▪ Aldi baterako kontratuen murrizketa aurreko urtearekiko (2016a oinarritzat hartuta)	2017 -% 2 2018 -% 5 2019 -% 10 2020 -% 10	%10,8			
▪ Prestakuntza (orduak/pertsona)	2017: 7 2018: 7,7 2019: 8 2020: 8,25	7,35			

▪ Enpresa Batzordeekin urtero egin beharreko bileren egutegia egitea eta betetzea	% 100	%100			
▪ Laneko ongizatea erdiestera bideratutako sozializazio-ekintzen kopurua (metatutako datua)	=>12	0			
▪ Pertsonen asebetetze-inkesta (bi urtez behingoa, 25 puntura eginda)	=>16,5	15,1			
▪ Argitaratutako ELP kategorien kopurua	2018 >=3 2019 >=6 2020 >=6	0			

nondik

1. proiektua: Zuzendaritza eta giza baliabideen taldea sendotzea. izaera estrategikoa duten gizarte-eta egitura-aldaketak garatzeko.

2. proiektua: Zuzendaritza garapena uztartu, EITBk oraingo eta etorkizuneko erronkei egokitzeko estrategia partekatzen duen zuzendaritza modelu pean.

3. proiektua: Laneko giroa hobetzen lagunduko duengizarte-ongizaterako proiektu bat egitea eta garatzea.

4. proiektua: Segurtasun juridikorako sistemak ezartzea etengabe aldatzen ari den arau- eta jurisprudenzia-inguru batean.

5. proiektua: Prestakuntza-plan berritzaile bat diseinatzea eta garatzea eraldaketa digitala eta garapen profesionala errazteko.

6. proiektua: Kompetentzien eta sailkapen profesionalen eredu kontzeptual bat garatzea aro digitalerako, egungo eta etorkizuneko testuinguruarekin bat etorriko dena.

7. proiektua: Enplegu Publikorako Deialdiak (EPD) egitea egiturazko izaera duten profil profesioaletan aldi baterakotasunaren tasa murrizteko.

8. proiektua: Antolakuntza-eraginkortasunerako neurriak garatzea pertsonen eta baliabideen planifikazio-sistema integratu baten esparruan.

6 EUSKAL IKUS ENTZUNEZKO SEKTOREAREKIN ETA ERAKUNDE AKADEMIKOEKIN LANKIDETZAN ARITZEA

Inorantza

EiTB euskal ikus-entzunezko sektorearen eragile traktorea da eta, beraz, ezinbestekoa da euskal gizartearekin lotutako sortzaileak eta kontaketak oinarritzat dituen lan kulturalaren multimediazko narratibarako.

Bereziki garrantzitsua da fikzio, zinema eta entretenimenduaren sorkuntzari eutsiko dion ehun bat izatea, horrek talentu artistikoa biderkatzen duelako, eta bertoko ikus-entzunezko lanak ekoizteko ahalmena ematen duelako, bertokoak diren, baina aldi berean, euskal unibertsoaren mugak gainditzeko eta beste kolektibitate batzuetara iristeko gai diren historia eta kontakizunekin.

Ezagutza eta sormen horrek, bestalde, sortzaileei eta industriari gaitasun handiagoa ematen die informazioarenak eta entretenimenduarenak ez diren beste sektore ekonomiko eta inguru batzuei zerbitzua emateko eta inguru bakoitzari dagozkion ikus-entzunezko produktuak sortzeko. Zentzu horretan, 4.0. Industria inguru bereziki interesgarria da.

Gaur egun, EiTBk euskal ikus-entzunezkoen sektorea garatzeko ezinbesteko eragile izaten jarraitzen du, broadcaster-a den heinean, edukien sortzaile gisa eta edukien hedatzaile gisa. Bere edukiak on line eta off line eredu multikanalera bideratuta daude; horrenbestez, edukien diseinuan eta izaeran cross media ikuspegia izan behar du.

Orain arte egin izan den bezala, EiTBk euskaraz jarduten duten gainerako ikus-entzunezko komunikabideekin harremanak izaten jarraitzeko asmoa du, eskaintzaren aniztasuna handitzeko, eredu eraginkorragoak sortzen dituen sinergia handitzeko, eta noski, eragileen arteko lankidetzaren instituzionala erdiesteko.

Horrek ondokoa esan nahi du:

- Edukiak egiten dituzten ekoizleek diseinuaren hastapenetatik ikuspegi multimedia bat izango dute EiTBren eskaintza lineal eta ez linealaren eredu berrirako, EiTBren transformazio digitalerako ereduari adierazten den bezala.
- Entrenimendu eta dibulgazioko edukiak erosteko erabiltzen den EiTBren finantzaketa publikoari dagokion zatia komunitatearen onurarako izaten da, euskal ikus-entzunezko industria dinamizatzeko inbertsioa delako eta, batez ere, tokiko enpresek jasotzen dutelako, indarrean dagoen legeria betez. Beraz, EiTBk herrialdean inbertitzen du, euskal industriaren eta bertako enpresen sustapen ekonomikoa bultzatzen baititu.

- Barruko ekoizpenaren aldeko apustuari eutsiko zaio barrualdean edo *in house* ekoiztita, eta ikus-entzunezko sektore independenteko ekoiztetxeentzat enkarguzko ekoizpena egingo da. Aurrekoaren ondorioz, nazioarteko eskubideen eta kanpoko ekoizpenen erosketari dagokionez, murriztu egingo da inbertsioa.
- Aurrekontuaren % 6 zineman inbertitu behar delako konpromisoa beteko da, bai eta euskal eta europar ikus-entzunezko lanen zabalkundeari lotutako betebeharrak ere, eta aurkeztutako proiektuak interes handiarekin aztertuko dira.
- EITB lankidetzan arituko da EIKEN+-ekin, euskal ikus-entzunezko industria biltzen duen klusterrarekin, sektoreko konpromiso estrategikoetan.
- EITB lankidetzan arituko da lanbide-heziketako zentroekin eta Unibertsitatearekin, bai beka sistemen alorrean bai trebakuntza dualarenean, erakunde akademikoen arteko kolaborazio-eredu baten babesean aberastasun sektoriala sortzeko.

Ardatz estrategikoan interesatutako stakeholder-ak: Plantilla, telebista- eta zinema-ekoizleak eta zerbitzu-hornitzaileak. Eusko Jaurlaritzaren, Eusko Legebiltzarra eta gizartea oro har.

noraino

EITBk jarduera ekonomikoa sustatzen parte hartuko du, Programa Kontratuan ezarritako esparruaren eredu.

Publizitate-, lehiaketa- eta gardentasun-printzipioetan oinarritutako kontratazio-eredu berri bat ezarriko du.

Unibertsitatearen, sektorearen eta ETBren arteko harremanak sustatuko ditu talentua identifikatzeko eta garatzeko.

	Helburua	Emaizak			
		2017/2020	2017	2018	2019
ZINEMAREN ETA DOKUMENTALEN FINANTZAKETA (L.G.A. 2010)	% 6ko konpromiso sektoriala garrantzea				
▪ Kontratutako proiektuak		54			
▪ Burututako obrak		33			
▪ Benetako inbertsioa (milioi euro)		6,47			
TELEBISTARAKO JARDUERA SEKTORIALA	Urteko % 2				
▪ Telebistako ekoizleen fakturazioaren hazkuntza urteko (milioi euro - aurreko ekitaldiarekiko %)		%14			
▪ Ekoiztutako ordu-kopurua (mis-toak/kanpokoak) ekoiztutako ordu-kopuru osoarekiko	Kopurua mantendu	3.548 %52,41			

I nondik

- 1. proiektua:** ETB eta ekoizleen artean [atari interaktibo](#) bat ezartzea proiektuen eskaria eta aurkezpena kudeatzeko publizitate-, lehiaketa- eta gardentasun-printzipioei jarraikiz [berrikusiko den edukien kontratazio-eredu](#) batekin.
- 2. proiektua:** [Talentua identifikatzeko eta garatzeko proiektua](#) unibertsitatearekin eta ikus-entzunezkoen sektorearekin lankidetzan.
- 3. proiektua:** Lankidetzaproiektuak garatzea euskarazko ikus-entzunezko komunikabideekin.
- 4. proiektua:** [Mundu akademikoarekin akordioak ezartzea](#) trebakuntza dualaren garapenerako, batez ere ikus-entzunezkoen eremu sektorialean.

7 INBERTSIOEN POLITIKA

Finantziaz

Ikus-entzunezko ekoizpenerako azpiegituren eta plataforma teknologikoen ekipamenduek, guztira, berrogei milioi euroko balioan kalkulatu dira, atzera ere berri erosi behar izanez gero.

Efizientzia teknologikoaren eredu baten pean, eta euskarri- eta mantentze-zerbitzu egoki batekin, ikus-entzunezkoen ekoizpen-ekipamenduak gutxien-gutxienik hamabost urterik behin berri behar dira, eta IT ekipamendua zazpi urterik behin. Beraz, inbertsioetarako urteko lau milioi euroko batz bestekoa zenbatesten da.

2012-2016 bosturtekoan, krisiaren ondorioz, inbertsioetarako aurrekontua 5,7 milioi eurokoa izan da. Programa Kontratuan jasotako finantza-aurreikuspenei jarraikiz, 2017-2019 aldirako 10,49 milioi euroko zuzkidura zenbatesten da.

Inbertsioak aldaketa teknologikora bideratuta daude; hauek dira xede nagusiak:

- i) Egoitza Bilbora lekualdatu aurretik (2007) erositako ikus-entzunezkoen ekipamendua ordeztzea platoetako HD produkzio-sistemak eta ekoizpen-baliabide periferikoak osatu ahal izateko.*
- ii) Eguneroko operazioak eta telebista, irrati eta interneten funtzionamenduaren jarraitutasuna ziurtatzea.*
- iii) Eraso eta sabotaje zibernetikoen arriskua minimizatzea.*
- iv) Kudeaketan eraginkortasuna maximizatzea sistema analitikoaren bidez.*

Horrek honako hau esan nahi du:

telebistan

- ETB1 eta ETB2 (1. fasea) eta ETB3 eta ETB4 (2. fasea) kateen hedapena HD-ra egokitzea.
- Miramon: 21-23-26 estudioak berri-tzea eta HD-ra migratzea.
- ENGen atzemate-formatua.
- Edizio-sistemak (albistegiak, kirolak eta programen post-produkzio arina)
- Bilbo: 1-2 estudioak berri-tzea eta HD-ra migratzea.
- DSNGak berri-tzea.

Irratian

- RDSI kodegailuak IP gainean kodetutako audiora migratzea.
- Radio Vitoria: nahasketa-mahaia.

- Radio Euskadi: GDS ordezkatzeta.

Interneten

- Plataforma propioak berritzea
- Aurreratutako enpresa multimedia bati dagokion neurriko App propioak.
- Konektatutako telebista-zerbitzua bermatzea (hargailuen marken bidez).

Izaera korporatiboarekin

- Muturreko egoeretarako kontingentzia-plana EITB Taldeko albistegi eta emisoreentzat.
- Informazio-teknologietan osotasun- eta segurtasun-sistemak garatzea.
- *Business Intelligence* ekoerreferentzia-ereduetara egokitzeta.
- Egoitzetan eta parke mugikorretan ingurumen-politika aurreratuak aplikatzea.

Ardatz estrategikoan interesatutako stakeholder-ak: Kanpoko hornitzaileak eta EITBko plantilla. Eusko Jaurlaritzaren, Eusko Legebiltzarra eta gizarte oro har.

noraino

Konpromisoak eta adierazleak inbertsioen politikan:

	Helburuak			
	2017	2018	2019	2020
▪ Taldearen aurrekontuko diru-hornidura (milloika eurotan)	2,6	3,9	4,4	Programa Kontratua
	Emaitzak			
▪ Taldearen aurrekontua egikaritzea	2.687.022			
▪ Euskal Telebista SA	2.524.942			
▪ Eusko Irratia SA	86.348			
▪ EITBNET SA	26.742			
▪ EITB entitate publikoa	48.990			

I nondik

- 1. proiektua:** 2017-2020 aldirako Inbertsioen Plana garatzea; egikaritze-planifikazioa Programa Kontratuaren aurrekontuko diru-horniduraren arabera egingo da.
- 2. proiektua:** Irrati-emisoreenkudeaketa digitalaren sistema ordeztea eta zehaztapen berriak finkatzea.
- 3. proiektua:** Dokumentuak kudeatzeko eta babesteko sistemak egokitzea segurtasun-eskema nazionalarekin bat etor daitezen.

8 KUDEAKETA AURRERATUA

inorantza

EiTBren enpresa-kudeaketaren oinarria gobernantza-, gardentasun- eta lehiakortasun-printzipioak jarraitzen dituen kudeaketa-eredu aurreratua bat izan behar da. Bere buruari eusten dion eredu bat

Gobernantzaren printzipioak:

EiTB sortzeko Legea betetzea; hainbat urtetarako Programa Kontratuak adostea eta garatzea; diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu-oreka; Jaurlaritzari, Legebiltzarrari eta Administrazio Kontseiluari enpresa-politiken eta emaitzen berri ematea; Euskal Administrazioaren etika eta gobernu onaren kodea eta kode horren garapena den EiTBko Jarrera eta Etika Kodea betetzea.

Gardentasun-printzipioa:

“Gardentasun-atariaren” bidez herritarrei komunikabide publikoen arloko asmo eta emaitzak ezagutzeko eta eskatzeko aukera erraztea. Asmo eta emaitza horiek hedabidearen arlokoak eta enpresaren garapen sozial, ekonomiko eta instituzionalaren arlokoak izan daitezke.

Lehiakortasun-irizpidea:

Kudeaketa-planak eta helburuak garatzea enpresa-prozesuek zerbitzu publikoaren helburuak betetzeko eta interes-taldeen itxaropenak asebetetzeko kalitateko eta intereseko edukien eskaintza ziurta dezaten.

Kudeaketa aurreratuaren politikak:

Kudeaketa-sistemetan kalitate-politikak eta interes-taldeei entzute- eta arreta-politikak aplikatzea enpresaren gizarte-erantzukizuna lankidetzaren bidez gauzatu dadin.

Horrek zera esan nahi du:

- EiTBren erreforma osorako legebiltzar-ponentziarekin aktiboki lan egitea; EITBk egoeraren azterketa, hausnarketa estrategikoa eta beste edozein eskaera ekarriko ditu.
- Estrategiaren definiziorako eta jarraipenerako beharrezkoa den informazioa kudeatzea. Kudeaketa hori elkarrekin lotura duten maila goreneko bi dokumenturekin egingo da: 2017-2020 aldirako Ildo Estrategikoak eta 2016-2019 Programa Kontratua.

- Audientziaren ezagutza eta espektatibak eta bezero komertzialen espektatibak kudeatzea. Produktuak aztertzea haien *restyling*-a eta egokitzapena egiteko audientziaren, bezeroen eta hornitzaileen ikerketa kualitatibo eta kuantitatiboaren bidez.
- Zuzendaritzek eta plantillak enpresa-proiektuarekin duten konpromisoa sustatzea eta bultzatzea. Zuzendaritza-taldean lantaldeen lider izateko gaitasuna eta pertsonen garapen profesionala sustatzea eta zabaltzea.
- Inguru sozialarekiko konpromisoa instituzionalki garatzea, jasangarritasun- eta aurrerakuntza-politiken bidez.
- Berrikuntza-helburuak eta -estrategia zehaztea eraldaketa digitalerako garatu behar diren kontzeptu- eta antolaketa-aldaketetatik abiatuta, eraldaketa digitala beste arlo batzuetan (antolaketa, arlo profesionala, editoriala, teknologikoa eta araudia) hainbat eraldaketan palanka aktibatzailea izan dadin. Bestalde, ikus-entzunezko edukiak berrikusi eta berritu egin behar dira.
- Enpresa-proiektua kudeatzea emaitza estrategikoak garatzean diseinatutako kudeaketa-planekin, eta bezero, pertsona, gizarte eta berrikuntzan.

Azaldutakoari jarraikiz, hauek dira izaera estrategikoa eta ikuspegi integratua duten politika korporatiboak:

1	Lana eta norberaren bizitza bateratzea.	7	Akordioak (bekak eta dualak) ikastetxe eta unibertsitateekin.
2	Langile eta zuzendaritzen prestakuntza.	8	Kalitatea kudeatzeko sistema (ISO 9001)
3	Emakumeen eta gizonen aukeraberdintasunaren plana.	9	Osasunaren prebentziorako eta lan-segurtasunerako kudeaketa-sistema (OHSAS 18001 eta ISO 45000)
4	Euskara normalizatzeko plana.	10	Ingurumena kudeatzeko sistema (ISO 14001)
5	Gizarte Erantzukizunaren Memoriaren publikazioa (GRI)	10	Gardentasun korporatiboa EITB.EUS-en bidez.
6	Jokaera eta Etika Kodea.		

Sozietate-eredua berrikustea.

Egungo sozietate-eredua birplanteatu behar da. Zuzendaritza-erantzukizun saihestezina da sozietate-antolamendua garai historikora doitzea, hurrengo hamarkadetan EITBren misio multimedia egokiro gara dadin.

Eraldaketa digitalak esan nahi du EITBk sorturiko ikus-entzunezko edukiek askotariko banaketa-leihoak dituztela eta, horrenbestez, sorkuntza- eta ekoizpen-prozesuak berriz zehaztu behar direla, bai komunikazio-eredu konbentzionala bai kontsumo-eredu ez-lineala –Internet bidezkoa– behar bezala ahalbidetzeko. Sortutako edukiak banaketa-bide guztietatik eskaini behar dira, eta konektatutako erabiltzailea EITBren jardueraren erdigunean kokatu eta komunitateak fidelizatuta egon daitezen lortu.

Beraz, egungo enpresa-egitura –telebista, irratia eta Internet bereizten dituen– eredu integratu baten alde aldatu behar da, baita sozietate-antolamenduari dagokionez ere. Komunikazioaren paradigma berri baterako prest egon behar dugu.

Sozietate-integrazioa prozesu gisa kudeatu behar da XI. eta XII. legegintzaldietan: i) sozietate-eredua zehaztea, Eusko Jaurlaritzarekin lankidetzan; ii) aginduzko lege- eta politika-alderdiak garatzea; iii) antolamendu-egiturak eta prozesuen mapa berriz zehaztea; iv) integrazioa lortzea, antolamenduari, araudiari eta profesionaleri dagokienez.

Ardatz estrategikoan interesatutako stakeholder-ak: Eusko Jaurlaritza, Eusko Legebiltzarra eta gizartea oro har. Langileak eta zuzendaritza-taldea. Gardentasunean eta kudeaketa aurreraturako politiken garapenean interesa duten gizarte-eragileak.

noraino

“Emaiza giltzarri” gehien parekatzen zaizkien adierazleak jasangarritasunari lotuta-koak dira eta bereziki ardura diete EITBko akzionistari (Eusko Jaurlaritza) eta Legebiltzarrari (funtzionamendua eta emaitzak kontrolatzeko azkeneko instantzia).

	Helburua	Emaitzak			
	2017/2020	2017	2018	2019	2020
<ul style="list-style-type: none"> Gardentasun-betebeharrak betetzea Administrazioaren-tzakako <i>reporting</i>-ean, Eusko Legebiltzarreko agerraldi eta erantzunetan, Administrazio Kontseiluan eta web korporatiboan. 	Aplikagarria den legea betetzea (xedea, epek, formalitatea)	Reporting-a epe barruan bidali da.			
<ul style="list-style-type: none"> Kontuei, kudeaketari eta legez-kotasunaren betetze-mailari buruzko urteko ikuskapenak. 		Erakundeak: Adm. Konts. E. Legebiltzarra E. Jaurlaritza, Sarbide esku-bidea INE-EUSTAT Gardentasun ataria EITB.EUS			
<ul style="list-style-type: none"> Finantza-oreka kapitalaren eta ustia-ketaren aurrekontuak egikaritzean. 	defizit gabe	Superabit 8.977 €			
<ul style="list-style-type: none"> Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Euskadiko 2020 programa betetzea (programan agertzen diren produktuen eta zerbitzuen lehiaketetan ingurumen-irizpideak sartzea). 	% 100	%100			

I nondik

- 1. proiektua:** *Big data*eredu baterako I+G+b edukien diseinuari buruzko erabakiak hartzean eta EiTbren plataforma digitaletako erabiltzaileei edukiak proposatzean. (Barne eta kanpo enpresekin, datuen jabeagoa duten enpresekin eta unibertsitatearekin lankidetzan). 8.1 proiektuarekin bateratua (Irailak 2018).
- 2. proiektua:** Kudeaketa-sistemak Business Intelligence-en erreferentzia-ereduetara egokitzea.
- 3. proiektua:** Estrategiaren garapena proiektuen eta adierazle propioen jarraipena eginez. Estrategia bat etorriko da urteroko kudeaketa planekin.
- 4. proiektua:** EiTbren *Corporate Compliance* proiektua aktibatzea enpresaren erantzukizun penala prebenitzeko.
- 5. proiektua:** EiTbren Etika eta Jokaera kodea ezartzea zuzendaritzan, plantillan, bezeroengan eta hornitzaileengan kultura etiko bat eta arauak betetzeko kultura sustatzeko.
- 6. proiektua:** Gizarte-erantzukizunerako eta-gardentasunerako politikak garatzea entzutean oinarritutako harremanen bidez Stakeholder-en behar eta espektatibak zeintzuk diren jakinda.
- 7. proiektua:** Eusko Jaurlaritzarekin hastea EiTb Taldeko sozietateen integrazioaren diseinua eta garapena egiteko lan ildoak.

4. Proiektuen laburpenaren koadroa

2017-2020

2017-2020 aldirako Proiektu Estrategikoak		Hasiera
1. ZERBITZU PUBLIKOAREN EREDUA		
1. helburua: EiTb audientzian eta gizarte-prestigian lidergoa duen euskal komunikazio taldea da.		
1.1	Komunikazio eta marketin korporatiboaren eredu berria.	2017
1.2	EiTb Kultura kateak sareen eta kulturaren arloko komunitateen/interes-taldearen estimua duen dibulgaziozko proiektu transbertsal indartsu bat izan behar du.	2018
1.3	Emakumeek egindako kirola EiTb Taldearen hedabideetan normalizatzeko ekintza-plana, berariaz koordinatuta egon behar dena Berdintasun Planeko Eduki Batzordearekin.	2018
2. LIDERRAK INFORMAZIOAN		
2 a helburua: Informazio-edukiek EiTbren lidergo informatiboa ziurtatzen dute.		
2.1	Albistegiak geure agendarekin egitea gure eskaintza erreferentziazkoa izango dela ziurtatzeko; eskusibak eta analisi propioak lortzea (EiTb Focus seriea bereziki zainduz) eta hauteskundearen aurreko garaian eta hauteskundeetan neutraltasuna erakustea.	...2017
2.2	eitb.eus interneteko informazio-erreferentzia bilakatzea etengabe informazio eguneratua emanez, sare sozialen erabilera aurreratuarekin eta erabiltzaileentzako zerbitzu pertsonalizatuekin.	2017
2b helburua: EiTbren eduki informatiboek sinesgarritasuna dute.		
2.3	Erreferentziazko komunikatzaileak sustatzea kalitatezko kazetaritza lantzeko profesionaltasuna eta independentzia ezaugarri dituen.	2017
2.4	ETB2 hainbat erregistrotan (umorean, ikerketan, zuzenekoetan eta abarretan) profilatu aktualitatearen erreferentziazko kanal gisa.	2018
3. EUSKARAZKO EDUKIEN ESKAINTZA		
3. helburua: Ikus-entzunezko edukiak euskaraz kontsumitzeko ohitura handiagoa sortzea.		
3.1	ETB1-eko edukiaren zuzendaritza bat sortzea talde sortzaileak dinamizatzeko eta telebista gehien kontsumitzen den orduetan finkatutako edukiaren markak sortzeko, batez ere astelehenetik ostegunera, 20:00 - 23:30 ordu-tartean (2016koarekiko).	2017
3.2	Haurrentzako euskarazko eskaintza interesgarri bat finkatzea ugaria izan ez arren estrategikoa den publiko bati zuzendutako zerbitzu publikoaren eginkizun gisa.	2017
3.3	Euskaraz jarduten duten youtuber-en presentzia handitzea, Gazteko DJ-ak Youtube bidezko musika-preskriptoreak bihurtuta, eta sare sozialetan euskararen erabilera sustatzea.	2018
3.4	Radio Euskadi eta Radio Vitoria irratiaren euskararen unibertsoa ageriko egitea; horretarako, komunikazio-eremu euskaldunetako eragileekin kolaborazioak egingo dira Euskara-Berri, Euskararen unibertsoa, Alea eta gisako espazioen bidez.	2017
3.5	Euskararen normalizaziorako ekimen berriak, hala nola Euskaraldia, Gipuzkoa Lab, eta abar babestea eta haiekin konprometitzea; web-serieen proiektu-pilotuak aktibatzea.	2018

4. TRANSFORMAZIO DIGITALA	
4. helburua: “Pertsona konektatuak” eta “eduki komunitateak” jartzea EiT布伦 eginkizunaren erdigunean.	
4.1 Talde arduratsu, jakintza-alor anitzekoa eta transbertsala sustatzea, lidergo argiarekin eraldaketa digitalaren estrategia garatu eta ezarri ahal izateko. Horretarako, pertsonak trebatuko dira eta proiektuaren komunikazioa sustatuko da EiT布伦 barruan eta EiT布伦tik kanpo.	2018
4.2 Antolakuntzako aldaketak egitea erredakzio-taldeetan.	2019
4.3 Multimediako talde transbertsalak sortzea edukien ildo berrietarako, besteak beste, 24/7 albistegi-zerbitzu etengabea eta GAZTEAren eredu aurreratu bat.	2018
4.4 Argitaratze-politika euskarri propioetan eta hirugarrenetan formalizatzea eta ezartzea, bai eta edukien ibilbidea eta sare sozialetako presentziaren dekalogo ere.	2019
4.5 + 8.1 (bateratuak). Erabiltzaileen erregistro iraunkor bat formalizatzea eta aktibatzea, harremana zuzena izateko eta fidelizazioa sortzeko.	2018
4.6 EiT布伦 plataforma digitaletan enpresa onenen neurriko zerbitzuen prestazioa eta erabiltzaile-esperientziak bermatzea.	2018
4.7 Sistema normalizatu bat aktibatzea gazteei zuzendutako EiT布伦 edukiak produktu <i>trans-media</i> edo interneteko erabiltzaile berriei oso ondo egokitutako edukiak izan daitezzen.	2017
5. PERTSONA GAITUAK ETA PROIEKTU BAT PARTEKATZEN DUTENAK	
5a helburua: Pertsonak proiektu partekatu batean lerrokatzea.	
5.1 Zuzendaritza eta giza baliabideen taldea sendotzea izaera estrategikoa duten aldaketa sozial eta estrukturalak garatzeko.	2017
5.2 Egungo eta etorkizuneko erronkei buruz sentsibilizatzeko eta erronka horiek ulertzeko barne eta kanpoko komunikazio soziala garatzea.	2018
5.3 Laneko giroa hobetzen lagunduko duen gizarte-ongizaterako proiektu bat egitea eta garatzea.	2018
5.4 Segurtasun juridikorako sistemak ezartzea etengabe aldatzen ari den arau- eta jurisprudentzia-inguru batean.	2017
5.5 Prestakuntza plan berritzaile bat diseinatzea eta garatzea eraldaketa digitala eta garapen profesionala errazteko.	2018
5b helburua: Aro digitalean zerbitzu publikoaren lidergoa ziurtatzeko akordioak.	
5.6 Konpetentzien eta sailkapen profesionalen eredu kontzeptual bat garatzea aro digitale-rako, egungo eta etorkizuneko testuinguruarekin bat etorriko dena.	2019
5.7 Enplegu Deialdi Publikoak egitea (EDP) egiturazko izaera duten profil profesionaletan aldi baterakotasunaren tasa murrizteko.	2018
5.8 Antolakuntza-eraginkortasunerako neurriak garatzea pertsonen eta baliabideen planifikazio-sistema integratu baten esparruan.	2017

6. EUSKAL IKUS-ENTZUNEZKO SEKTOREAREKIN ETA ERAKUNDE AKADEMIKOEKIN LANKIDETZAN ARITZEA	
6. helburua: Ikus-entzunezko eduki eta zerbitzuetan talentua eta enpresa-lankidetzatza sustatzea.	
6.1 ETB eta ekoizleen artean atari interaktibo bat ezartzea proiektuen eskaria eta aurkezpena kudeatzeko, publizitate-, lehiaketa- eta gardentasun-printzipioei jarraikiz berrikusi den edukien kontratazio-eredu batekin.	2018
6.2 Talentua identifikatzeko eta garatzeko proiektua unibertsitatearekin eta ikus-entzunezkoen sektorearekin lankidetzan.	2018
6.3 Lankidetzatza-proiektuak garatzea euskarazko ikus-entzunezko komunikabideekin.	2017
6.4 Mundu akademikoarekin akordioak ezartzea trebakuntza dualaren garapenerako, batez ere ikus-entzunezkoen eremu sektorialean.	2018
7. INBERTSIO POLITIKA	
7. helburua: Inbertsio-plana garatzea.	
7.1. 2017-2020 aldirako Inbertsioen Plana garatzea; egikaritze-planifikazioa Programa Kontratuaren aurrekontuko diru-horniduraren arabera egingo da.	2017
7.2 Irrati-emisoreen kudeaketa digitalaren sistema ordeztzea eta zehaztapen berriak finkatzea.	2019
7.3 Dokumentuak kudeatzeko eta babesteko sistemak egokitzea segurtasun-eskema nazionalarekin bat etor daitezten.	2018
8. KUDEAKETA AURRERATUA	
8a helburua: Kudeaketa-eredua aldatzea estandar aurreratuenetara egokitzeko.	
8.1 +4.5 (bateratuak) <i>Big data</i> eredu baterako I+G+b edukien diseinuari buruzko erabakiak hartzean eta EiTbren plataforma digitaletako erabiltzaileei edukiak proposatzean. (Barne eta kanpo enpresekin, datuen jabegoa duten enpresekin eta unibertsitatearekin lankidetzan).	2018
8.2 Kudeaketa-sistemak Business Intelligence-en erreferentzia-ereduetara egokitzzea.	2018
8.3 Estrategiaren garapena proiektuen eta adierazle propioen jarraipena eginez. Estrategia bat etorriko da urteroko kudeaketa planekin.	2017
8.4 EiTbren <i>Corporate Compliance</i> proiektua aktibatzea enpresaren erantzukizun penala prebenitzeko.	2018
8b helburua: Interes-taldeak gogobetetzeko moduko emaitza iraunkorrak lortzea.	
8.5 EiTbren Etika eta Jokaera kodea ezartzea zuzendaritzan, plantillan, bezeroengan eta hornitzaileengan kultura etiko bat eta arauak betetzeko kultura sustatzeko.	2018
8.6 Gizarte-erantzukizunerako eta -gardentasunerako politikak garatzea entzutean oinarritutako harremanen bidez Stakeholder-en beharrak eta espektatibak zeintzuk diren jakinda.	2017
8b helburua: EiTb Taldearen sozietate integrazioa.	
8.7 Eusko Jaurlaritzarekin hastea EiTb Taldeko sozietateen integrazioaren diseinua eta garapena egiteko lan ildoak.	2019